

Kaixo lagunak!:

Egun hauetan familia edo lagunartean bake egunak pasa dituzuela espero dut. Niretzat, agur esateko momentua iritzi da, edo eta geroarte, hortik ikusiko garen esperantzan gelditzen naiz.

Suposatzen dut zuetariko zenbaitek badakizuela, baina Urtarrila edo Otsailetik aurrera Federazioaren buruan jarraituko ez dudala esan beharrean nago.

Egoerak eramanda, ez naiz berriro hauteskundeetara aurkeztuko. Beraz, beste pertsona batzuek zuzenduko dute. Zortea beraintzat.

Orain dela 4 urte nirea izan zen abentura hau bizitzeko momentua eta zin dagizuet pena merezi izan duela. Esperientzia zoragarria izan da. Esperientzia zoragarria, bereziki, pertsona zoragarriak ezagutu eta tratatu ahal izateagatik, bere herri eta klubekin konprometituak dauden pertsonak, zu bezalako pertsonak, beso zabalekin jaso nauzuelako eta zuen laguntasun eta berotasuna eman didazuelako. Eskerrik asko!

Nire partetik lau urte hauetan, gai izan naizen indar eta ilusioarekin lan egiten saiatu naiz. Alde batetik Federazioaren garapen haundiena bilatzen eta bestetik Euskal futbolaren alde egiten. Era berean ere, gure talde eta selekzioek posiblea zen egoera hobereanean lehiatzen eta nazioarteko mailan presentzia haundiena bilatuz aritu naiz.

Zenbait momentutan izan ditudan gogo hauek odolberoegia izatera eraman nautela aitortu beharrean nago, barkamenak eskatu nahi dizkiet minduta sentitu direnei.

Baita ere esan nahi dizuet indepentzia zorrotza mantendu dudala, inolako mesedetasunik gabe, zuetariko bakoitzari tratu eta arretarik hobereana emanaz. Beharbada ez dut beti lortu eta sentitzen dut.

Esperientzia hain zoragarria izan da, Europear UEFA Herrialdeetako txapelketa baten lorpenaz gozatu izan dudala Polonian.

A ze talde ona! José Carlos atezain penalti gelditzailea, Fernando Véliz kapitaina edota txapelkun egin gintuen Alainen eta taldeekideen gol izugarria. Zein konbidentzia baikorra eta ze oroitzapen ahaztuezina. Esperientzia hau eta beste batzuk, euskal futbolari esker izan dira, zuei esker.

Nire oroitzapenekin ez aspertzeko eta agurra oso luzea ez egite arren, garbi eta gogoz eskertu nahi dizuet, urte hauetan lagundu nauzuen guztiei, eta batzuetan ere nire jeinu eta ezinegona jasan duzueni. Zuek gabe ezer ez litzateke posiblea izango eta ez luke sentzurik edukiko.

NIRE BILTZARKIDEEI

Fidelak eta leialak izan zarete zuen erlazioan, pertsonalki asko aberastu nauzue. Eskerrik asko zuen kolaborazio eta adiskidetasunarengatik. Utzidazue izenik ez aipatzea.

ENPLEGATUEI

Langile eta pertsona zoragarriak zarete, beti prest eta laguntzeko gogoekin. Bihotz-bihotzez eskerrik asko. Uzten badidazue, Itziar, Ibon eta Iker, esaiozue Jon Anderreri idazkari eragingarria izateaz gain, nire dudak, beldurrak, premiak eta akatsak jasatea ere tokatu zaiola. Zuen bizitzan dena primeran joatea opa dizuet.

MEDIKUEI, FISIOEI, DELEGATUEI, HAUTATZAILEEI, MATERIAL ARDURADUNEI

Zuei buruz zer esan dezaket, soldatarik gabe lanean dihaurluzuela, zuen oporrak eta dirua ere galtzen dituzuela selekzio ezberdinak funtziona dezaten. Zer esan daiteke federazio honen sorreratik lanean dihardutenei buruz, Juanra Barrena, Paco Alacid Pinilla edota Antxon del Puertori buruz. Zuentzako nire eskerrik zintzo eta kuttunenak. Futbolak zuekin egindako gutxiezipena konpontzea nahiko nuke, ahal den neurrian behintzat, baina ez naiz trebea izan horretarako. Sentitzen dut.

EPAILE BATZORDEEI, ENTRENATZAILEEI, FUTBOL SALARI ETA ARAUBIDEZKOEI.

Eskerrik asko zuen lana, jakintasan eta dedikazioarengatik. Zein ondo eta zein egoera zailtan lan egin duzuen Epaile batzordeetan, Jon Agirre eta kideak. Jakin badakit zuen lanean independenteki eta zapaldu gabe iharduteak kale gorrira eraman zaitzakezuetela. A ze nolako injustizia hori gertatzen bada. Ikaragarriak zarete eta horrela onartzen du mundu guztiak. Berdina esan behar dut Javier Cuevas eta kideei buruz futbol salako epailetzarekin. Patrick Allende Futbol Salako Presidente eta José Luis Santamaria Entrenatzailea, beteranoak, jakitunak langileak eta leialak. Jose Luis Hormaechea , Carlos Fuentesbro , Daniel Gainzarain , Jesus M^a Esteban , Carlos Ais , Oscar Fernandez , Indalecio Fernandez , Imanol Prado , Juanjo iturrate , Borja Irizar eta Carmelo Merino. Legea zintzoki betearazi duzue partiduetako informatzaileen laguntzarekin. Guztiei nire eskerrona eta onginahia. Eskerrik asko.

ENTRENATZAILE ESKOLARI

Urrejola, Zaldua eta Segurola Jauneei, gure futbolaren etorkizunerako hain garrantzitsua den tresna martxan jarri duzue eta baldintza ezegokitan lortu ere. Eskerrik asko.

EUSKAL KLUB GUZTIEI

Profesionalak eta ez profesionalak.

Zuen laguntza eta sustengua eman diguzue, zuen jokalaria eta instalakuntzak utzi dizkiguzue. Eskerrik asko zuen berebiziko laguntzagatik eta eman diguzuen gizabidezko tratuaengatik.

INSTITUZIO, ENPRESA ETA ERAKUNDEEI

Gurekin ihardun eta lana erraztu diguzuen guztiei. Ziur sarritan zorrotzegiak izan garela baina egia da ere laguntza guttia, gutxi izaten dela. Eskerrik asko.

KOMUNIKABIDEEI

Eskerrik asko zuen kolaborazio ordainezinagatik, barkamenak eskatu behar dizkizuet batzutan, nahiz eta nire gogoia beti zuek atenditza izan den, presioak zenbaitetan irabazi nau eta behar bezala atenditu ez zaituztelako. Benetan sentitzen dut.

Zuri Aritz Gallastegi, kolaboratzaile bikaina, eta besteei sorte on eta arrakasta asko opa dizkizuet.

GIZONEZKOEN SELEKZIO ABSOLUTUTARI

Gure selekzionatzaileekin, Iribar eta Etxarri Jaunekin ihardutea itzelezko ohorea izan da niretzat, Manolo Delgado prestatzaile fisikoarekin, medikuekin eta bestelako laguntzaileekin eta futbolari hobezinekin.

Eskerrik asko zuen interes gabeko laguntzagatik, eta jakin dezazue Oinarrizko futbolaren jasotako lagutzaz gain beheko selekzioen funtzionamendua posiblea egin dela zuei esker.

Eskerrik asko.

Inor ez ahaztea espero dut, benetan sentituko nuke.

Bihotz-bihotzez, bizitzak gogobetetze askorekin asetzea espero dut,. Jaso ezazue nire besarkadarik gogoena.

AGUR !!